



Otsailean izango da Bertsoaroa

Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Iruñeko Udalak antolatutako ekimena **otsailaren 10etik 24ra egingo da.**

Urtearen hasierara mugitu da aurten bertsoaren aroa Iruñean. Nafarroako Bertsolari Txapelketa izan zen udazkenean, eta hiriari egiten zaion bertsolaritza eskaintza orekatu asmoz aldatu zen Bertsoaroaren tokia egutegian. 31.edizioa izango du datorren hau, eta otsailaren 10etik 24ra gauzatuko da.

Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Iruñeko Udalak antolatutako ekimenak unean uneko bertsolaritzaren berri kalitatez eta aniztasunez ematea du helburu, Nafarroako bertsolariei eta bertsolari gazteei protagonismoa emanez.

Sei emanaldi guztira

Hiru bertso jaialdi, bi emanaldi berezi eta haurrentzako tailer bat antolatu dira. Otsailaren 10ean eta 24an bertso jaialdiak izango dira Nafarroako Antzerki Eskolan, eta gazteen bertso saioa Katakraken, otsailaren 17an. Emanaldi bereziei dagokionez, bertsozik harago doan eRRe ikuskizun hibridoa otsailaren 15ean eskainiko da Nafarroako Antzerki Eskolan, eta pianoa eta bertsoa elkartzen dituen *Bederatzikoa* otsailaren 22an, Kondestableko Civivoxen. Antzerki eskolan egingo diren hiru emanaldiak bosna euroko sarrera izango dute, eta hirurentzako bonoa eskuratu ahal izango da 12 eurotan (sarrerak salgai

antzekiaren webgunean); beste bi emanaldiak doako sarrera dute.

Saio hauek guztiak asteartez edota ostegunez izango dira, guztiak ere 19:00etan hasita. Haurrentzako Bertso jasa, bat-bateko jolasa bertso tailerra, ordea, larunbatez izango da: otsailaren 19an, 11:00etan, Txantreako Salestarretan. Aurretik izena ematea beharrezkoa izango da kasu honetan, nafarroa@bertsozale.eus helbidera idatzita edota (+34) 948 143 747 telefono zenbakira deituta, otsailaren 17ra bitarte.

Emanaldiei buruzko xehetasun gehiago www.bertsozale.eus atarian dituzu.



Aurten ere bertsolari gazteei protagonismoa emango zaie Bertsoaroan. //XDZ



SUSTRAI COLINA
ACORDARREMENTERIA
Amurrio, 2022-01-01

Doinua: Mundu hau uzten bazun

Izango baldin bada
urtea demasa
hasieratik landu
beharko da masa
nahiz prentsan dena dugun
datua ta tasa
zenbakitan ez denez
sentitzen arnasa
hitza hartu dezagun
eta ongi pasa.

“Guri zaila egiten zaigu etiketa bat jartzea. Ikusi ondoren, bakoitzak bere erara defini dezala”

eRRe emanaldia ondu dute Aner Peritzek, Haizea Aranak, Leire Vargasek eta Oihana Aranak. Otsailaren 5ean eskainiko dute emanaldia estreinakoz Durangoko San Agustin Kultur Gunean; ondoren, beste zortzi emanaldi dituzte jada hitzartuta.

Nola sortu zen eRRe?

Aner Peritz: eRRe ez da gu laurongandik sortutako proposamena; Lankuk proposatu zigun. Lehendabizi Oihanari Martak, eta handik laukotera etorri zen. Aurreko udan bazkaritarako bildu eta aurrera egitea erabaki genuen. Bertso emanaldia egiteko proposatu ziguten, eta hortik aurrera geuk erabaki dugu dena: gaiak, formak, moduak, testuak... bertso emanaldi bat zer den ere bai.

Aldarri bat bertsoz. Zeren aldarria da eRRe?

Haizea Arana: eRRe gauza askoren aldarria da, eta ez da kasualitatea gure gorputz eta identitateetatik sortua izatea. eRRek geure gorputzak zeharkatzen dituzten hainbat gairekin kritiko izan nahi du; horien artean, bertsoaritzarekin. Betiere, geure ikuspuntutik eta autokritika puntu batekin. Bertso munduari bertsolari bollera eta marika gazte batzuen ikuspuntua adierazi nahi zaio, oholtzan dugun lekua aldarrikatuz eta gure artean hainbestetan partekatu, baina publiko egin ez ditugun gai eta aldarriak plazara eramanez.

Ohituta zaudete bertsoan oholza gainean, baina bestelako esperientzia dirudi honek. Laguntzarik izan duzue emanaldia oholtzara ekartzeko?

Leire Vargas: Bai, guztiz bestelako esperientzia da: gutxi bat-batekotik, denak egon behar du prestatuta eta ondo pentsatuta, denak izan behar du zentzua eta praktotasuna, bai emanaldiaren funtzionamenduari eta bai ikusleak ulertuko duenari begira. Gidoia idazteko ez genuen aparteko zailtasunik eduki: sortu genituen eRRe osatzen duten hamar eszenak eta baita haien testuak ere.



Leire Vargas, Haizea Arana, Oihana Arana eta Aner Peritz. //XDZ

Taularatzea zen arazoa, ordea. Pare bat hilabetez egon ginen geure kabuz horretan lanean, era guztiz instintiboan, eta ohartu ginen antzerki mundutik zetorren norbaiten laguntza behar genuela. Hala, logikoa iruditu zitzaigun gure zuzendaria izango zen Edurne Azkarateri deitzea: aurretik ezagutzen genuen, eta bagenekien behargin fina zela. Eta esperientzia bikaina izan da harekin lan egitea, bai; asko irakatsi digu, eta oinarritik hasita xehetasunetaraino eraman gaitu performatuko dugun hori birpentsatzera eta hari zentzua ematera, halako eran non orain benetan argi baitugu zertan ari garen eta zergatik. Guk ikusi ere egiten ez genituen gauzetan jarri du fokua berak, eta trinkotasuna eman dio eRRei zentzu bisual eta eszenikoan. Ezinezkoa litzateke oholtzara eramango dugun hori publikoak merezi duen antzerki mailara iristea hura gabe.

Bertsolaritzak elkartutakoak zarete, baina bestelako kultur diziplinetan ere baduzue esperientziarik. Bertso Udalekuak edo Ahots Baten bezalako egitasmoek lagundu zaituztete zuen sorkuntzan hazten?

Oihana Arana: Hasteko eta behin, esan beharrekoa da elkar aipatu ekimen horietan ezagutu dugula. Anerrek, Haizeak eta Oihanak 2014an ezagutu genuen elkar Bertso Udalekuan, eta Leire 2020ko Ahots Baten sormen topagunean batu zen taldera. Ekimen hauek lagundu digute bertsoaren inguruko sareak sortzen, taldea egiten eta bertsoa taldean egiten den zerbait moduan ulertzen. Hortaz, ezinbestean izan dute eragina gure sorkuntza ulertzeko maneran, norbere proiektu propioetan, eta, batez ere, emanaldi konkretu honetan.

Bertso saioa, antzerki emanaldia, errezitaldia... kategorien aurka dagoen ekoizpena badago definitzerik?

Interesatzen zaigun hori kontatzeko moduak atakatzten saiatu gara, emanaldi hibrido bat osatzeraino. Gai bakoitza lantzeko aproposena iruditu zaigun diziplina aukeratu dugu: bertsoetik dezente dauka, antzerkitik ere bai, badago musika, narrazioa, “dantza”... Guri zaila egiten zaigu etiketa bat jartzea. Ikusi ondoren, bakoitzak bere erara defini dezala.



eRRe ikusteko aukerak

<u>Otsaila</u>	<u>Martxoa</u>
5 Durango	4 Sorluze
15 Iruñea	9 Tolosa
18 Aretxabaleta	11 Zuia
19 Zizurkil	12 Astigarraga
	25 Zarautz

Otsailaren 7an irekiko da Bertso Udalekuetako hezitzaileen izen-ematea

Begirale, sukaldari edota zuzendari lanak egitera joan nahi duten lagunek izena emateko bi aste izango dituzte, baita begirale praktikak egin nahi dituztenek ere.

2022ko Bertso Udalekuetara begira prestaketa lanetan hasiak gara. Hezitzaile taldea osatuko dugu lehendabizi, eta horretarako izen-emateari ekingo diogu datorren otsailaren 7an, 10:00etan. Bertsozale Elkartean webgunean argitaratuko den izen-emate orria bete beharko da horretarako, otsailaren 21a baino lehen; egun horretan, eguerdian, amaituko da izena emateko epea.

Begiraleek, sukaldariak, zuzendariak eta begirale praktikak egiten dituzten kideek osatzen dute hezitzaile taldea; eta ardura bakoitzak bere izen-emate orria izango du. Adi, beraz, izena ematerakoan. Amañurren, Irañetan, Larraulen eta Zuhatzan izango dira egonaldiak, azken horretan bi txanda, eta guztiak uztailean gauzatuko dira.

Bertso Udalekuetan parte hartu nahi duten gaztetxoek izen-ematea martxoan izango da, eta laster izango duzue BertsoZalea berripaperean nahiz Bertsozale Elkarteko webgunean txanden eta izen-emate epeen berri.

Koordinatzaile posturako deialdia

Bestalde, Bertso Udalekuen koordinazio lanak egingo dituen pertsona baten bila ari da Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.

Udalekuetako txanden diseinuaz, kudeaketaz eta exekuzioaz arduratuko da (programazioa, finantzak, harremanak...) eta udalekuetako batzordearen eta hezitzaileen lantaldearen kudeaketaz ere bai.

2022ko apirilaren 11tik irailaren 15era bitarteko kontratua egingo zaio hautatuari, ekainean eta uztailean lanaldi osokoa eta lanaldi erdikoa gainerako denbora tartean. Euskal Herriko Bertsozale Elkartean egoitzan, Amasa-Villabonako Subijana etxean, egingo du lan.

Gradua edo goi mailako titulua izatea eta transmisioan eskarmentua izatea ezinbestekoa izango da, hala nola, gidabaimena eta autoa. Bertso Udalekuetan jardundakoa izatea, bertso mundua ezagutzea eta talde dinamizazioan esperientzia izatea aintzat hartuko da, besteak beste.

Otsailaren 20ra arte bidali ahal izango dute interesdunek Curriculum Vitae, azken egun hau barne, hezkuntza@bertsozale.eus helbide elektronikora.

Lanpostuaren ezaugarriak nahiz bilatzen den profilari buruzko informazio gehiago, www.bertsozale.eus atarian.



Hezitzaileek maiatzaren 20an hasten den asteburu osoko prestaketa saioan hartu behar dute parte. //XDZ



Puntu jarrita

MADDI AIESTARAN IPARRAGIRRE

Burua desberdin konfiguratuta dakargunok ere zortziko handiak bukaera biribil batekin salbatzen ikasi genuen eskolartekoetan, Ane. Baina esango nuke, lezio hori kuestionatzera iritsi bagara, ez zela alferrikakoa izan hamabost urterekin Oñatiko puntaraino egin genuen bidaia, baserri handi hartara. Bertso Udalekuetara koskortu arte iritsi ez ginen Zeta belaualdiko askok saio horietan eman genion gure buruari baimena (agindu tonuarekin agian) delako konfigurazioa aktualizatzeke.

Denbora joan da ordutik, baina ausartuko nintzateke esatera aspaldi osatu genuela halako gu bat "bi mila eta gutxikook". Eta gu hori zaintzeko eta babesteko gogoa sentitzen dut, gaur, inguruan. Hortik kantatu nahi dugu, eta hori uste dut inporta zaigula gehixeago, nora edo zeri kantatu baino: garenetik kantatzea.

Ez zait iruditzen lau urteko saltoa nahikoa denik gaitegi diferente bati begira egoteko. Ordea, zerbaitek egiten baldin bagaitu 1997 eta 2001 desberdin, esango nuke izan daitekeela berriaren berritu nahia: ahots berriak, ikuspuntu berriak, gorputz berriak, molde berriak. Bertsoan egiteko sekulako gogoa dakargu eta elkarrekin sortzea maite dugu; behar al da besterik bide berri bat urratzeko? Barre egin nahi dugu bakarka, eta negar puntuka, besarkatu egin nahi dugu elkar ofizio baten ondoren, eta poltsikotatik atera nahi ditugu eskuak. Aldatzera gatoz, eta garenetik ekiteak egiten du berritu nahiaren aldarria sinesgarriago.

Esango nuke "erdibideko belaualditxo" hein handi batean dugula belaualdikide, baina bada batzuetatik besteetarako saltoki aldamenetik adi-adi erreparatzen dienik. Ainhua, zertan sentitzen duzu zuk diferentzia batzuei eta besteoi gaiak planteatzeko orduan? Eskatzen al dizu konfigurazio aldaketarik buruak, laurogeita hamarrekoei (are, laurogeita pikokoei, hirurogeita hamarrekoei...) jartzeko gaiak pentsatzetik bi milakooi gaiak jartzera igarotzen zarenean?

Koplak

Hiru lan deialdi egin ditu Bertsolarien Lagunak Elkarteak

Koordinatzaile orokor, hezkuntza eragile eta administrazio teknikari postuetarako lankide banaren bila dabil Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako elkarteak. Martxoaren 20ra arte bidali ahal izango dira Curriculum Vitaeak posta arruntez nahiz elektronikoz. Lanpostuei eta deialdiari buruzko informazio gehiago, www.bertsozale.eus atarian.

Poto-Finixa



Grabatzen... ekin!

Gero(r)a Mugitzenen grabazioa / Xepelar Dokumentazio Zentroa

Urtarrilaren 29an hasiko da Plazara!

Bertsolari gazteen plazaratzea eta saretzea bultzatzeko xedez antolatu du Bizkaiko Bertsozale Elkarteak *Plazara!* bertso zirkuitua bigarren bez. 27 gaztek eman dute izena, eta sei saiotan ariko dira; hilabetean emanaldi bat eskainiko da. Lehena urtarrilaren 29an izango da Gernika-Lumoko Arrano tabernan, 18:30ean.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian